

## GAZTERIA ETA KIROLA SAILA

### OIARTZUNGO KIROL KLUBEN ETA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA BERAIEK JARDUNA SUSTATZEKO 2023KO DIRULAGUNTZAK BANATZEKO OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK

#### 1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak

Oinarri-arau hauen xedea hau da: 2023an zehar, Oiartzungo kirol- klub eta -elkarteen **ohiko funtzionamendua** garatzeko, kirol modalitate bakoitzaren denboraldiak hartzen duen aldiaren arabera, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiartzungo udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak.

#### 2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak

Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duenez gain, oinarri espezifiko hauek arautzen dituzten dirulaguntzak, baldintza hauek betetzen dituzten Oiartzungo Kirol- klub eta -elkarateek eskatu ahal izango dituzte:

- a) Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta egotea eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta egotea.
- b) Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- c) Helbide soziala eta jardute eremua Oiartzunen edukitzea. Salbuespen gisa, Gazteria eta Kirol Sailak, jardute eremua Oiartzunen izanik, interesgarriztat jotzen dituen jarduerak eta proiektuak egiten dituzten klubak ere onartuko dira, nahiz eta egoitza Oiartzunen ez izan.

d) Gipuzkoako lurraldeko Eskola Kiroleko araudia betetzea. (*125/2008 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolari buruzkoa, eta KG-2022-033 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, 2022-2023 ikasturterako eskola kiroleko jardueren programa onartzen duena*).

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarateak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarateak, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarateak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gionezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Ondorengo kirol modalitate, kirol-klub eta elkarateak deialdi honetatik kanpo gelditzen dira:

- Mendizaletasuna, ehiza, arrantza eta zikloturismo modalitateak, modalitatearen barne estruktura eta praktika motaren ezaugarriak kontuan hartuta, antolatutako ekintzen arabera jasoko dituzte dirulaguntzak eta dirulaguntza lerro honetan ez dute parte hartzerik izango.
- Oarsoaldeako kirol koordinazio mahaian hartutako akordioen ondorioz trataera berezia izango duten eskualde izaera duten kirol-klub eta -elkarateak, beste trataera izango dutelarik.

### **3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak**

Ez da dirulaguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren gastuak.

- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren gastuak.

#### 4. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa. Gehieneko dirulaguntza eta aldaketak

##### **4.1 DIRULAGUNTZEN KONTZEPTUAK ETA IRIZPIDEAK**

Oinarri hauetan zehaztutako ohiko kirol jarduerak diruz laguntzeko zehaztutako zenbateko guztia, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak kontutan hartuz, jarraian azaldutako kontzeptu eta irizpideen arabera banatuko dira:

##### ***1. KIROLARIAK: Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko***

- Lizentzia bakoitzeko **puntu 1**
  - o Emakume federazio lizentziak **0,5 puntu gehiago**
  - o Oiarzuar herritarren lizentzia bakoitzeko **puntu 1 gehiago**
  - o 12-18 urte bitarteko kirolari bakoitzeko **puntu 1 gehiago**
  - o Aniztasun Funtzionala duen kirolari lizentzia bakoitzeko **10 puntu gehiago**

Honako hauek ere hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako kirolarien lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute.

##### ***2. ENTRENATZAILEAK: Entrenatzaileen titulazio, euskara maila eta generoa***

###### **Kirol titulazioa:**

- o Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako lizentziatuduna edo graduatua edo 3. Maila (KEE<sup>(1)</sup>), Nazionala (edo baliokidea): **8 puntu**
- o Irakasle ikasketak heziketa fisikoa (kirol magisteritza) edo 2. Maila (KEE<sup>(1)</sup>), Lurraldekoa: **4 puntu**
- o Gorputz eta kirol ekintzen teknikaria (TAFYD) edo 1. Maila (KEE<sup>(1)</sup>), Monitorea: **2 puntu**
- o Gazte eta Kirola Plan (GKP) – 0. Maila edo eskola kiroleko titulazioa eta antzekoak: **puntu 1**
- o Monitore titulugabea edo laguntzailea: **0 puntu**

<sup>(1)</sup> *Kirolaren Euskal Eskola*

###### **Euskara titulazioa:**

- o 2. Maila (EGA edo baliokidea): **4 puntu**

- 1. Maila (2. HE edo baliokidea): **2 puntu**

**Genero irizpidea:**

- Emakume entrenatzaile bakoitzeko: **x1,5 puntu**

**3. ZUZENDARITZA: genero irizpidea**

- Zuzendaritza parekidea izateagatik. Gehienez **10 puntu**

**4. MODALITATEAK: bereziki sustatutako modalitateak**

Bi lerro zehazten dira irizpide honetan:

- 1) Kirol-klub edo -elkarte berri edo bereziki sustatu beharrekoak.

UKABen aurkezten diren proiektu guztietatik gehienez hiru aukeratuko dira eta ohiko dirulaguntzaz gain ondorengo puntuak gehituko zaizkie, UKABen onartutako denboralditik kontutan hartuta:

1. Aurreko denboraldia onartu bazen: **100 puntu**
2. Orain dela 2 denboraldi onartu bazen: **50 puntu**
3. Orain dela 3 denboraldi onartu bazen: **25 puntu**
4. 4. denboralditik aurrera ez da puntuatuko

- 2) Herrian historikoki lotura berezia izan duten kirol modalitateak sustatzen dituzten kirol-klub edo -elkarteak, ondare kultural bat dutenak eta laguntzarik ezean kirol minoritarioak izanik desagerpenera joko luketenak: lizentzia bakoitzeko **4,5 puntu gehiago**.

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidari gordetako dirua guztien artean proportzionalki banatuko da.

**4.2 ZENBATEKOA**

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa **54.000,00 euro** izango da, 1102.481.341.00.02 2023 aurrekontu partidaren kargura. eta lehiaketa bitartez “Ohiko Kirol Jardueretarako dirulaguntza” kontu sailaren kontura finantzatuko da.

**4.3 GEHIENEO DIRULAGUNTZA ETA ALDAKETAK**

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Aurreko kasuan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolanahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inoiz, bakartuta zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

## 5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

2. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kirol -klub eta -elkartek dirulaguntzak lortu nahi badituzte, modu telematikoan aurkeztu beharko dituzte eskaerak. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren leku 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskaera orri orokorra. **(I. ERANSKINA)**
- b) Entitatearen estatutuak. <sup>(1)</sup>
- c) Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria. <sup>(1)</sup>
- d) Araudi honek arautzen duen kirol jarduerari dagokion denboraldiko programaren txosten originala, erakundearen organo eskudunak onartuta.
- e) Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoa) eta sarreraren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua. **(II. ERANSKINA)**
- f) Zinpeko aitortpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa. **(III. ERANSKINA)**
- g) Gipuzkoako lurraldeko Eskola Kirola araudia betetzen duen zinpeko aitortpena. **(IV. ERANSKINA)**
- h) Ohiko jarduerarako Kirol Jarduera Eranskina **(V. ERANSKINA)**

***OHARRA:*** Kirol modalitate bat baino gehiago izanez gero, gainontzeko modalitateentzako ***V.b ERANSKINA*** ere bete.

- i) Kirolari federatuen zerrenda federazioak zigilatuta (izen-abizenak, jaiotze-data, sexua, kategoria...) edo dagozkien fitxak.

<sup>(1)</sup> *Agiria aurreko urteetan aurkeztu bada eta geroztik aldaketarik egon ez bada, ez da berriro aurkeztu behar.*

## 6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

## **7. ARTIKULUA.- Epeak**

Dirulaguntza eskaerak, 30 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita, 5. artikuluan deskribatutako agiriekin batera.

## **8. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna**

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

## **9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kirol arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Gazteria eta Kirol Saileko Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luzatu dezan.
- Udal Osoko Bilkurak behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, 7. artikuluan zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Ordainketa era honetan gauzatuko da:

- Dirulaguntzaren lehenengo zatia, %60a, gastuen konturako aurrerakin moduan, hura onartzen denean.
- Gainerako %40a, denboraldia amaitu ondoren, **11.1 JUSTIFIKATZEKO EPEA** atalean zehaztutako datarako eta **11.2 JUSTIFIKATZEKO ERA** atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

## 10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Ordenantzaren 7., 8. eta 9. artikuluek, hizkuntza, berdintasun eta ingurumen irizpideen inguruan ezartzen dituzten betebeharrak bete beharko dituzte ere.

Aurretik aipatutakoez gain, kirol-klub eta -elkarte onuradunek honako hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Dirulaguntzak jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da Udal Kirol Aholku Batzordeko (UKAB) aurreko denboraldiko bileretako %50era ordezkari baten asistentzia izana.
- b) Klub onuradunak indarrean dagoen kuotaren % 75eko hobaria bideratzeko konpromisoa hartuko du, kirol denboraldiaren indarraldian DSBE laguntza jasotzen dutela egiaztatzen duten familia unitateetako kideentzat, bertako jardueretan parte hartzeko, muga gutxienez plaza 1 izango delarik, 15 kirol lizentziako.
- c) Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzaileak idatziz, ahoz edo irudi bidez eginiko iragarki guztietan Oiartzungo Udalaren laguntzaren berri eman beharko du, haren logotipoa txertatuz (adb.: weba, pankartak, ekipaia...).

- d) Parte hartzen duen lehiaketa ofizialetan lortutako emaitzen berri eman beharko du zehaztuko diren kanalen bitartez.

## 11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

### 11.1 JUSTIFIKATZEKO EPEA

- Denboraldiko antolaketa dutenek 2023ko irailaren 30erako.
- Urteko antolaketa dutenek 2024ko urtarrilaren 31erako.

### 11.2 JUSTIFIKATZEKO ERA

Azaldutako epearen barnean eta Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzako VII tituluan zehazten dena jarraikiz, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskaera orri orokorra (I. ERANSKINA)
- b) Kirol memoria. (VI. ERANSKINA)
  - **Jarduerei buruzko memoria.** Lortu dituzten emaitzei buruzko balantzea ere aurkeztuko da. (gizonezkoena eta emakumezkoena)
  - Taldea osatzen duten gizonezkoei eta emakumezkoei buruzko kirol balantzea (**sailkapenak, tituluak, selekziodunak...**).
  - Egin bada, egin diren komunikazio guztien ale bana erantsi.
- c) Memoria ekonomikoa. (VII. ERANSKINA)
  - Izandako diru-sarreraren eta gastuen **balantze orokorra** (denboraldikoa edo urteko balantze orokorra, kasuak kasu).
  - **VII. ERANSKINA** osatu, zehaztutako atal eta azpi-atalen arabera.
  - Diruz lagundutako ekintzen gastuak osotara justifikatzen dituzten **fakturen kopiak VII. ERANSKINEAN** azaltzen den ordenaren arabera.
  - Entitateak denboraldian izan dituen **laguntzen eta dirulaguntzen kopia (hitzarmenak, GAO, EAO, ...)**.

### 11.3 JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTU BAIMENDUAK

Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorreko I. eranskinean zehaztutako dokumentuak bakarrik onartuko dira dirulaguntza justifikatzeko.

## 12. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea

- 8 -





OIARTZUNGO  
UDALA

Deialdi honetako 11. artikulua ezartzen duena betez, dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiarzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

### **13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria**

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arau orokorretan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzari, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrari eta bat datozen gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie.